



EUSKAL HERRIA

Indartzen ari gara edo ahultzen?

Gure herriaren etorkizunaz kezkatzeko hamaika arrazoi

Zein da Euskal Herriaren osasun egoera? Galdera

potoloegiak egiteak ekar dezake bidean eskuak harrapatzea.

Arrisku hori bazegoen lan

honetan, eta saihesteko, azken boladan

kezkarri heldu dioten hiru aktorerengana jo dugu.

Eneko Bidegainek *Lurralde eta Herria* liburua idatzi

berri du. Beatriz Akizu Eusko Ikaskuntzaren

magaletik ari da jorratzen gaia; mendeurrena dela

eta, erakundeak *Euskal Herriko lurralde(ar)en liburu*

berdea idatzi du, liburu zuriaren atariko. Josu Amezagak

Euskal Herriko komunikazio espazioa aztertu du. Eta Aman Komunak

taldearentzat euskal komunitate sendoa zer den azaldu digu Joseba Alvarezek.



UNAI FDEZ. DE BETOÑO

■ **Egilea: Xabier Letona**

Azala: Joseba Larratxe · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.eus **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.718. zenbakiarekin banatua, 2018ko urriaren 28an)

“Balia ditzagun egitura autonomikoak Euskal Herria indartzeko eta ez ahultzeko”



HEIDI OTADUY

ENEKO BIDEGAIN

Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Eneko Bidegain (Baiona, 1975) Debagoienan ari da irakasle. 1995etik 1999ra *Berria*-n aritu zen kazetari. *Lurraldea eta herria. Zazpiak bat. Atzo, gaur eta bihar* liburua argitaratu du aurrean. Euskal Herriko hiru eremu administratiboen garapenak gure herriaren izaera ahultzeko duela deritzo. Bere ustez, lurraldeen arteko loturak sendotzeko, ezinbestekoa da egunerokoan herritarren eta erakundeen arteko harremanak eta ekimenak areagotzea.

Duela 40 urte erakundetu ziren EAE eta Nafarroa Hegoaldean. 40 urte hauetan Euskal Herriaren irudia indartu egin da ala ahuldu?

Kezka hori nuelako hasi nintzen liburuarekin. Instituzionalizazioen indartzearekin batera ahuldu egin da Euskal Herriaren irudia, bereziki azken 15-20 urteetan. Lehenbiziko 20 urteetan mugimendu abertzalean oso kritikatu zen zatiketa hori, ez zuen zilegitasunik. Autonomiaren espazio horiek indartu ahala, Eusko Jaurlaritzak bereganatu du Euskal Herriaren iruditeria kanpora begira. Eskola liburuetan ere islatzen da, eguraldi mapetan, estatistiketan eta beste gauza askotan.

Eta lehenengo 20 urteetan zergatik zen sendoa-
goa?

Sektore espainolistek eta EAJren munduak onartzen zuen zatiketa, baina oposizio handia zuen; gerora hori desagertu egin da eta onarpena zabalagoa da. Hainbat gauza izan daitezke. 80ko hamarkadan Euskal Herriko mapa errespetatzen zen gutxi gora-behera, *El Diario Vasco*-tik *El Mundo*-ra. 2000tik aurrera desagertu zen hori.

Euskal Herriko lurraldeak elkarri bizkarra ematen bizi direla diozu. Zergatik?

“

Ez dut ikusten herria oso kezkatuta Euskal Herriaren gaiarekin. Instituzioak ere ez. Eta diputazioei begiratzen badiegu, ikusiko dugu nola ari den handitzen ikaragarri probintzialismoa”

Eguneroko bizitzako kontu askotan gertatzen da: gai administratiboetan, osasungintzan, bankuekin... Europar Batasunean gaude baina zatiketa administratiboak asko eragiten du. Oztopo horiek bereziki nabaritzen dituzte muga ondoan bizi diren pertsonak, alde batean lan eta bestean bizi direlako, adibidez.

Horrez gain, irudipen hori dut ikasleekin ere; bizkaitarrei, adibidez, gero eta urrunago egiten zaie Nafarroa Garaia edo Ipar Euskal Herria. Oro har, herritarren arteko harremanak txikitzen ari dira. Lehen bazen joera bat joateko Lapurdira, orain ez horrenbeste, badirudi frankismoan baino beldur gehiago dagoela muga pasatzeko.

Orduan, zatiketa administratibok banatzen bagaituzte, hobeto geundeke egitura autonomikorik gabe?

“

Azkenean galdera zera da, EAEk bakarrik egingo balu independentziarantz, horrek lagunduko luke beste eremuetan independentismoa indartzen ala, orain bezala, urruntzeko joerak indartzen jarraituko luke?”

Gure ideala Euskal Herriaren batasuna bada, balia ditzagun egitura autonomikoak batasuna bultzatzeko eta ez zatitzeko. Ez dadila izan tarteka prentsaren aurrean egiten den sinadura ekitaldi bat, zerbait iraunkorrago baino. EAEko egitura askok –adibidez Eustatek– funtzionatzen dute EAE Euskal Herria balitz bezala, Ipar Euskal Herria eta Nafarroa ahaztuz, eta hori beste sektore askotara kutsatzen da. “Euskal errepi-deetan 57 lagun hil dira aurtan” irakurtzen duzunean, galdera berez dator: zer dira euskal errepi-deak? Zertan ari da Eusko Jaurlaritzak *Basque Country* marka erabiltzen duenean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa promozionatzeko?

Agenda politikoan ere independentziaren aldarrikapena EAERA ari da mugatzen gero eta gehiago: “Beste lurraldeek egin dezatela beren erritmoan eta guk gurean”. Horrek ematen dit beldurra. Egia esan, orain ez dut ikusten indartsu mugimendu independentista EAEn. Batek daki, agian 50 urtera Nafarroa Garaian da indartsuago. Azkenean galdera zera da, EAEk bakarrik egingo balu independentziarantz, horrek lagunduko luke beste eremuetan independentismoa indartzen ala, orain bezala, urruntzeko joerak indartzen jarraituko luke? Poz handia hartuko nuke oker egongo banintz.

Dena handira jokatzek ere kezkatzen zaitu. Adibide gisa aipatzen duzu azken urteetan apustu guztia erabakitzeko eskubidean egin dela. Azaldu dezakezu zer esan nahi duzun?

Hasteko, estrategia hori pentsatua dago banaketa administratiboaren arabera. Orain agenda politikoan dago EAEko estatusen erabakitzeko eskubidea sartzeko aukera, baina gai hori hor bukatzen da. Gauza asko esan daitezke Lizarra-Garaziko garaiaz, baina niri ilusio handia egin zidan, oinarritzen zelako gauzak egitean, euskal herritar guztien artean edo euskal lurralde osoa kontuan hartuta. Handik sortu ziren Udalbiltza eta Gaindegia, esate batera. Han bazen ideia nagusi bat: gauza zehatzak eginez egiten dugu herri bat.

EAEren erabakitzekeo eskubidea gauzatuko balitz ere ez luke bermatuko Euskal Herri osoan kohesioa bultzatzea. Ez dut hainbeste esperantzarik politika profesional eta instituzionalean, egunkarietako azal gutxiagoren bila joan beharko litzateke. Askoz emankorrago ikusten dut azpiko politika, elkarleen, erakundeen, jende xehearen eguneroko lana.

Baina ikuspegi demokratiko batetik, herri batek nola adierazi dezake zer nahi duen, bere etorkizunaz erabakitzekeo eskubidearekin ez bada?

Niretzat Euskal Herria, Katalunia bezala, legez kanpo da Espainia eta Frantziaren parte; beren egoera zapalkuntzaren emaitza da eta zapalkuntzak jarraitzen du. Zapalkuntza horren ondorioz, administrazioarekin, komunikabideekin, kulturarekin, poliziarekin... horrekin guztiarekin gizarte bat egin dute. Beraz, gauza bat da gizartea eta bestea herria. Espainiak onartuko balu bere barruan nazioak direla eta hauek askatasunerako eskubidea dutela, onartu beharko luke zuzenkontra daudela menpe eta, beraz, independentzia onartu beharko lieke; eta behin herria aske denean, erabaki dezake nahi duena, Espainiarekin batu ala ez. Baina zapaltzailearen menpe gauden bitartean, nekez erabaki ahal izango dugu ezer. Egungo zapalkuntza baldintzetan bozketa hori izango balitz ere, ez litzateke ez bidezkoa ez demokratikoa.

Ari zara esaten, "ez jarri indarrrik estatus kontuetan, egunerokotasunean baizik", baina biak ez daude kontrajarriak.

Ez ditugu indarrak soberan, eta indarrak batean edo bestean jartzen dira. Begiratu Laborantza Ganbera, ikastolak edo beste hainbat proiektu. Balio izan dute euren eremuak garatzeko, baina baita jende asko erakartzeko eta helburuak sozializatzeko ere.

Sektore politiko batek inoiz onartu ez duen zatiketa onartzen bada –baita erabaki eskubidearekin ere–, indartu dezakegu autonomismoa

“

Baina zapalduaren menpe gauden bitartean, nekez erabaki ahal izango dugu ezer. Egungo zapalkuntza baldintzetan bozketa hori izango balitz ere, ez litzateke ez bidezkoa ez demokratikoa”

baina ez independentismoa. Herri gisa aurreratzeko batuta edo koordinatuta egin behar da, baina giza kate bat egiten bada Donostia-Bilbo-Gasteiz lotuko dituen, horrekin herri ikuspegia ahuldu egiten da. Arabarra, zuberotarra eta nafarra elkarrekin lanean ari direnean, herri gisa dagoen zatiketa argiago bistaritzen eta gainditzen da. Hori kentzen badugu ez da herri ikuspegia gartzten eta herri ikuspegiaren garapen faltatik ez da independentismoa indartuko. Lapurtarrekin edo nafarrekin lan egitearen ekarpena da herri kontzientzia sendoago bat edukitzea, eta hortik errazago egin daiteke independentismoaren bidean.

Lurraldeen arteko loturak areagotzeko ekimen eta ideia ugari aipatzen dituzu liburuan. Aipa ditzakezu horietako batzuk?

Batzuk zailak dira, beste batzuk egin ezinak une honetan... Egingarrienak herri ekimenetik edo

“

Gauza asko esan daitezke Lizarra-Garaziko garaiaz, baina niri ilusio handia egin zidan, oinarritzen zelako gauzak egitean, euskal herritar guztien artean edo euskal lurralde osoa kontuan hartuta”

“

Ez dut hainbeste esperantzarik politika profesional eta instituzionalean, askoz emankorrago ikusten dut azpiko politika, elkarteen, erakundeen, jende xehearen eguneroko lana”

instituzio txikietatik bultzatutakoak dira, oztopo legal eta instituzional gutxien izango dituztenak, udalak, euskal kazetari asko dago gauza asko egiteko, gure festei buruzko gogoetaren bat, herri elkartetatik topaguneak sortzea...

Ipar Euskal Herriko kultura politikoa asko aipatzen ari da orain Hego Euskal Herrian. Zer ikasi behar du Hegoaldeak Iparraldetik?

Hego Euskal Herrian gauza batzuk oraindik ez dira posible talka politiko oso gogorra egon delako: hildako asko dago, mehatxatuak, torturatuak, presoak... Horrek guztiak askoz zailagoa egiten du Ipar Euskal Herrian izan den elkarrizketa. Adostasun zabalak ekartzen du ados jartzea elkartzen gaituen oinarri komun txikienean. Adostasun oso zabaletik nekez egin daitezke urrats handirik. EAEren estatusaren gaian, adibidez, adostasun zabalak izenean EH Bildu eta PP ados jartzea lortzen baduzu, bateren batek seku-

“

Herri gisa aurreratzeko batuta edo koordinatuta egin behar da, baina giza kate bat egiten bada Donostia-Bilbo-Gasteiz lotuko dituen, horrekin herri ikuspegia ahuldu egiten da”

lako amore ematea egin beharko luke. Hala ere, Ipar Euskal Herriko politikak badu gauza on bat, azken 50 urteetan gutxienez harreman politikoak modu zibilizatuan egiten direla. Adi baina, irudi faltsu bat ere sortzen da: harreman molde horretan nor galtzen du gehien? Max Brisson abertzaleen oso laguna da, baina irmoki azpimarratzen du Ipar Euskal Herria Frantzia dela eta kito.

Gu hemen ari gara kalaka, baina gizartean ba al da Euskal Herriari buruzko kezkarik kalean, erakundeetan, instituzioetan?

Euskal Herriko gizartearen arazoetako bat da, eta bereziki mundu abertzalean, ekonomikoki nahiko eroso bizi dela. Jende asko nahiko ondo bizi da, edo ustez nahiko ondo, asko direlako hipotekatuak etxebizitzagatik edo kontsumo ohiturengatik... Jende askok bere burua bakarrik ikusten du, eta herriaren ikuspegia lausotu ahala, kezka hau ere lausotzen da. Kulturalki estatuen ereduak indar handia duen bitartean, kezka hori lausoagoa izango da. Elkarren arteko zubiak garatzen ez badira, harremanak ahultzen dira... Ez dut ikusten herria oso kezkatuta gai honekin. Instituzioak ere ez. Eta diputazioei begiratzen badiegu, ikusiko dugu nola ari den handitzen ikaragarri probintzialismoa: diru-laguntzekin, garraioarekin... Euskal Herriko klabeen gehien ari direnak Euskal Herri mailako ikuspegia dute-nak dira, eta batez ere euskalgintza.

Eusko Ikaskuntzan *Euskal Herriar lurralde(ar)en* Liburu Berdea prestatu dute eta Liburu Zuriaren oinarriak ere jartzen ari dira. Zer iritzi duzu?

Erakunde nazionala den heinean, Euskal Herriaren lurraldetasunaren alde lan egitea dagokio. Eta hori ongi iruditzen zait. Liburu Berdea irakurri nuen, eta badaude gogoeta interesgarriak. Orain Liburu Zuriaren zain nago. Zalantza sortzen zait “Euskal lurraldeak” izendapenarekin, ez baita argi zertaz ari garen “lurraldeak” aipatzean, eta Euskal Herriak, berez, lurralde bakarra baitu. ■

“Gure lehen kezka da Euskal Herriaren iraunkortasuna XXI. mendean”



XABIER LETONA

BEA AKIZU

Eusko Ikaskuntzako kidea

Bea Akizuk (Soraluze, 1969) Eusko Ikaskuntzako bi eremu koordinatzen ditu, sozio-politika bata, eta gizartea eta aniztasuna bestea. Antropologoa formazioz, irakaskuntza, musika eta artean ere jardun du hainbat urtez. Erakundeko gainerako kideak bezala Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenean buru-belarri dabil, besteak beste *Euskal Herriko Lurralde(ar)en Liburu Berdea*-ren gauzatzean. Liburu berde batek gai bati buruz askoren artean egindako hausnarketa biltzen du eta sarri liburu zuriaren atariko da, kasu honetan bezala.

***Euskal Herriko Lurralde(ar)en Liburu Berdea* egin du Eusko Ikaskuntzak. Zergatik?**

Duela ehun urte antzeko erronka izan genuen, herri honek bere baitatik egin beharreko hausnarketan laguntzea etorkizun berri bat irudikatzen. Orduan, oraindik jorratu gabeko bideak irudikatu behar ziren. Gaur, galdera berari erantzun beharrean gaude, baina egoera konplexuago batetik. Gizarte zibil oso aktibatua dugu, ezagutza gune desberdin eta askotan dago, euskal lurraldeak erakundetuta daude... Konplexutasun honi erantzuteko, gure etorkizuna erabakitzekeko modu berritzailean erantzutea dagokigu.

Euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzaren ardatz hartuta, 2014an hasi ginen askoren arteko hausnarketa honekin. Hasieratik argi genuen logika gehigarria eta integratzailea aplikatu behar genuela, lankidetzan oinarritutako bidea ireki; begirada poliedrikoa jaso, ezagutza akademikoa eta praxitik datozen ezagutzak bildu. hasi ginen Liburu Berdearen oinarriak jartzen.

Duela 100 urte Euskal Herriko lau diputazioetatik etorri zitzaion enkargua Eusko Ikaskuntzari. Orain nondik datorkio bultzada?

Eusko Ikaskuntzaren sorrera orduko elite sozia-



Gobernantza demokratikoa, ongizate eredia, aniztasuna eta euskararen alorrean, adibidez, agenda konprometituak sortuko dira, arkitektura eta bide-orri batekin”

lak, politikoak eta kulturalak bultzatu zuen lau diputazioen babes eta zaintzarekin batera. Eusko Ikaskuntzaren kapitala pertsonak dira eta erakundeekin duen lotura. Euren potentzialitate-rik handiena da pertsona desberdinen arteko solaserako esparruak eraikitze ahalmena eta duen lurraldetasuna izaera –lurralde guztietan ondo kokatua dago eta begirunez hartzen da historian egin duen lanagatik–. Liburu Berdean ikuspegi desberdinak metatu ditugu hainbat esparruren bueltan. Pertsonetan oinarrituta, eragile eta erakundeen arteko konfiantza kateak bideratzean dago gure arrakasta.

Beraz, Euskal Herriko esparru sozio-politiko eta kultural ugarietako pertsonak daude lanean Liburu Berdean.

Halako hausnarketetara datozen lehenak dira Euskal Herria subjektu gisa hartzen dituzten sektoreak. Geruza gehiagotara zabaldu behar dugu, baina ari gara apurka. Askotariko fosilizazioei egin behar diegu aurre; politika egiteko era, ezagutza sortzeko eta zabaltzeko era... askoren artean ekin behar diogu gure etorkizunari, deliberazio esparru estrategiko berritzaileak sortuz eta taktikak beste eszenatokietan landuz.

Garrantzitsua da baita ere lurralde guztien narratiba biltzea. Askotan hitz egiten dugu Euskal Herriaz, baina bizkaitarrismotik edo EAE-zentristotik. Bakoitzak bere nortasuna du eta guztien artean elkar aberasten dugu.

Liburu Berdearen helburuetako bat da lurraldearen demokratizazioan sakontzea. Non dira horretarako klabeak?

Herritarren ahalduentze politikoa, deliberazioa, berdintasuna, bermea, behetik gorako erabakimena... Demokratizazioan oinarritutako gobernanta ere du berria sortzeko, herritarrek jarrera demokratizatzaileak sustatzeko, gizarte zibilak eta erakundeek egin behar dituzte euren deliberazio prozesuak, denon artean trukatzeko eta elikatze. Inteligentzia kolektiboa aktibatuko duen prozesu sakonaren aldeko apustua egin behar duen gaude.

Liburuaren sarreran deigarria egin zait honi guztia-ri erreferentzia egiten dion puntua hasiera samarrean egon behar duen 21. puntu dagoela, *Herri-tartasuna* izenburupean.

Ordenak ez du garrantzirik lan honetan, osagai eta ikuspuntu oinarritzkoenak biltzea da inportanteena. Lau poltsa nagusi ditugu. Poltsa bat da nortasun anitzeko gure jendartea: zer gara eta zer nahi dugu izan? Nola eraiki proiektu partekatu bat? Nola sendotu herritartasuna? Beste bat lurraldea eta lurra: nolako harremana nahi dugu beste lurraldeekin, nola trinkotu harremanak? Hirugarren bat sozio-ekonomia da: sortu-banatu horretan, zer eta nola? Ze ongizate eredia behar dugu? Eta laugarren bat demokratizazioan oinarritutako gobernanta da: zer harreman nahi dugu estatuekin? Europarekin? Zer nolako demokratizazio prozesuak behar ditugu aktibatu globalizazio prozesuari eusteko?

Eta honetan guztian ba al dago kezkarik Euskal Herriaren ideiaz? Euskal Herria indartzen edo ahultzen ari ote den?

Bai, gure prozesua 2014an Iruñean, Baionan eta Durangon gauzatutako dinamika parte-hartzailean oinarritzen da. Orduan bildutako eragileek eta herritarrek identifikatu zituzten erantzun beharreko kezka eta eronkak. Lehen kezka zen

Euskal Herriaren iraunkortasuna XXI. mendean eta hori sostengatzeko adarrak: sozio-ekonomia, sozio-politika, euskara eta errealitate sozio-kulturala. Beti geroa eraikitzeari begira.

Hego Euskal Herria frankismotik atera zenean ere hori zen kezka nagusietako bat. Orduan abiatu ziren Gernikako Estatueta eta Foru Hobekuntza. 40 urtetan behar bezala baliatu dira tresna horiek Euskal Herriaren errealitatea sendotzeko?

Horren inguruan hainbat iritzi egon daitezke. Tresna horiek eman dizkigute gure autogobernuerako bide bat Hegoaldean, aurrerapauso handiak eman dira eta oraindik badute potentzialitate handia. Baina, orduan egin zen bezala, orain ere posible ote dugu beste aurrerapauso bat eman? XXI. Mendeak planteatzen dizkigun erronkei erantzuteko, gero eta beharrezkoagoa ikusten da eredu eta marko berrien premia. Batez ere demokratizazioari begira eta, honetan, gakoak dira herritarren borondatea errespetatzea eta lurralde bakoitzaren erritmoa kontuan hartzea. Esate baterako, Europari begira, berau egituratzeko printzipioak herritarren eta herriak ziren, baina gero estatuen eta merkatuen Europan bilakatu da. Beraz, erakutsi diezaiogegu Europari hasierako printzipioetan oinarritutako beste harreman mota bat posible dela?

Euskal Herrian askok pentsatzen du lurralde administratiboen zatiketa horrek ekarri duela bakoitza berean zentratzea eta ikuspegi orokorra galtzea.

Kezka hori ere atera da. Sektorekako hainbat harreman badira, baina gero ez dugu ahalmenik –gure beldurrak ere hor daude– beste erabateko lotuneak sortu eta hainbat esparru trinkotzeko. Hainbat klusterretan badira loturak, euskalgingtza ere bai... baina dugun kultura politikoak ez digu lagatzen pentsatzen maila instituzionalean ere beste modu batera aritu daitekeenik. Horregatik ematen diogu indarra gizarte zibilari, herritarren, erakundeak eta akademia herri proiektu klabean aktibatzeari.

“

Demokratizazioari begira gakoak dira herritarren borondatea errespetatzea eta lurralde bakoitzaren erritmoa kontuan hartzea”

Komunikazioaren esparrua gaur egun giltzarritzat jotzen da herri baten nortasun osagaiak eraikitze-ko. LARRUN honetan Josu Amezagak dioenez, ez dago nazio komunikazio espaziorik Euskal Herrian. Oso ahulak gara alde horretatik.

Hala da, bai. Komunikazio sistema sendo bat gakoa da elkar ezagutzeko eta dugun agenda komunikatiboaren hegemonia apurtzeko. Euskal Herria desagertu egiten da eskaintzen diguten agenda horretatik, lurraldeen eta ikuskeren arteko gatazkak elikatze-ko agendak dira eta ez lotu-neak, zoru komunak eta proiektu partekatuak osatzen lagunduko digutenak. Kohesio bideak irudikatzen laguntzeko erantzukizun izugarria dute komunikabideek.

Ardura instituzionala dutenen artean, ba al da borondaterik komunikazio esparru hori eraikitze-ko? Esparru horretan gabiltzanok sarri boluntarismo ariketa handia egin behar dugu hori sinesteko.

Hala da bai. Baikorrakoak garenok badakigu maratoian gaudela, baina ez zenbat kilometroko maratoia den. Zaila da eta gainera ohituta gaude halakoei gure gotorlekutik erantzuten. Komunikazioa esparru garrantzitsuetako bat da, hezkuntza sistema beste bat, unibertsitatea... Ongi gaude, aurrerapauso handiak eman dira, baina krisialdia hor nabaritzen da. Erakundeek berri-tzaileak eta oso ausartak izan behar dute. Ohikoan gizarte zibila erakundeen aurretik dabil. Horregatik, sinetsi behar dugu gizarte zibil sendo batek lagunduko diela erakundeek beldu-

rrak uxatzen eta eraberritzen. Ezin dugu erakundeen tokia hartu, ezta haiek bortxatu, bakoitzak gure betebeharrak eta erritmoak ditugu, baina ausartak izatera lagundu bai.

Azken 40 urteetan ez gara gai izan festa bateratu bat egiteko Euskal Herrian, ezta liburutegi nazional bat ere, estatistika erakunde instituzional batera-tua... eta berdin herri baten nortasun bateratua eraikitzeke beste hainbat alorretan. Maratoi latza aipatzen duzuna.

Bai, eta berau egiteko klabea da ulertzea hori askoren arteko lana dela. Euskal Herriari begira lan egiten duenak zailtasun handiak ditu datu bateratuak eskuratzeko, erakunde bakoitzaren diru-laguntzetan arakatzeko, bestelako deialdiak oso egituratuta daude euren esparruetan eta oso zaila egiten da handik harantzago joatea, dauden tresnak ez daude prestatuta osotasuneko logika horri erantzuteko.

Ezaguna da ur berotan dagoen igelaren kasua, apurka berotzen da hura eta igela goxo, baina ohartu orduko ura gehiegi berotu da eta igela hil. Ba al da halako arriskurik Euskal Herriarekin?

Kezka hori da, eta lortu behar dugu kezka horretaz gizartea ohartaraztea. Guk nahi dugu herritarrek bere barneko indarrak aktibatzea, ohartaraztea bere ongizatea nortasun kolektiboan aktibatzeke datorrela eta horrek, gainera, lagunduko digula Europan eta munduan kokatzen. Liburu Berdearen prozesuan ari garenak hainbat ikuskerakoak gara, baina hortaz jabetzen gara, partekatzen dugun zorua da. Gizartea ez dago lo, baina konektatzea falta zaio.

Baina ez gaitzen engaina, botere politikoa klabea da Euskal Herri mailako edozelako proiektu eraikitzeke. Erabiltzen ari gara dugun botere politikoa hori norabide horretan?

Hori da kontua. Lurralde desberdinetako gizar-tean botere maila bat duten eragileak bildu eta

elkarrekin solasean jartzen ari gara eurentzat ohiko-a ez den eszenatoki batean, eratzaila izan daitekeen herri proiektu baterako oinarriak eztabai-dagai hartuta.

Eta ba al dute horretarako borondaterik?

Intentsitate desberdinarekin, baina bai. Liburu Zurirako planteatuko ditugun oinarriak norabide horretan doaz, indar politiko horiek elkar lanean jartzera. Abiadura desberdinak egongo dira, ekimen batzuk geldoagoak, baina izan behar dira praktikara ere eramateko moduko ekimenak. Ideia edo ekimen batzuk izango dira politika publikoetan berehalakoan abiarazteko modukoak eta beste batzuk konfiantza, sareak eta harremanak garatzeko bideak.

Liburu Zuriaren oinarrietan hitz egiten da epeen gainean?

Finkatuko dira halakoak, baina gure Liburu Zuria batez ere maratoiarekin lotua dago. Liburu Zuria ez dator inongo instituzioren enkargutik, gizar-te zibiletik dator eta oraindik lokarri eta sinergia ugari lotzeko ditugu. Baina lortu dugu izaera, lurralde eta jatorri ezberdinetako mila pertsona aktibatzea hausnarketa prozesu honetan, eta hori asko da. Liburu Zuriak konpromiso-zko oinarriak izango ditu.

Liburua bera noizko bukatu nahi da?

Aurten landuko duguna 2019an gauzatzeko modukoa izango da. Gai batzuek epe luzera begiratuko dute. Kulturaren arloa eta hezkuntza sistema ez ditugu asko sakondu oraindik. Baina gobernantza demokratikoa, ongizate eredu-a, aniztasunaren kudeaketa eta euskaraz bizi nahi duen komunitatearen alorrean, adibidez, agenda konprometituak sortuko dira, arkitektura eta bide-orri batekin. Uste dut aurten aterako denarekin izango dugula hiruzpalau urterako bultzada, gero beste aurrerapauso bat eman beharko da, etengabeko konplizitateak kateatuz. ■

“Komunikazio esparru nazionalik gabe, ezin da euskal naziorik eraiki”



XABIER LETONA

JOSU AMEZAGA

EHUko irakaslea

Soziologian doktorea da Amezaga (Caracas, 1960) eta EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko zuzendaria.

Komunikazio espazioaren garrantzia naziojogintzaren erronkaren aurrean

azterlana aurkeztu zuen 2017an eta

honen inguruan jardun dugu batez ere.

Bere tesia latza da: Euskal Herria nazio gisa ikusten dugunok ez dugu nazio esparru komunikatiborik eta hori gabe, gaur egun, nekez eraiki daiteke euskal naziorik.

Goazen begirada bat ematera aztertu dituzun komunikazio espazioei: espazio nazionala, estatala eta erregionala.

Lehenik argitu nahiko nuke komunikazio espazioaz ari naizenean komunikazioa iristen den espazioaz ari naizela. Hiru espazio bereizten ditut: nazionala, Euskal Herri osoa hartzen duena; erregionala edo autonomikoa; eta estatala, Frantzia edo Espainiako espazioaz ari dena. Tokiko komunikabideak ez ditut sartu azterketan, berez espazio lokal hori birsortzen dutelako; lagundu dezakete nazioa eraikitzen, baina islatzen duten espazioa ez da nazioa, tokia baizik.

Ongi da, orain goazen ikustera nola hedatzen diren.

Gehien kontsumitzen diren komunikabideak dira espazio estatala bisortzen dutenak. Egunero Euskal Herriko herritarren %80 baino gehiagok Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten dion komunikabide bat kontsumitzen du; aldiz, %35-40k bakarrik kontsumitzen ditu Euskal Herri osoari buruz ari diren komunikabideak. Jakina, herritarrak kontsumitu dezake bi espazioetatik, ez dira baztertzailak, baina kasurik onenean, gutxi-gora-behera herenak kontsumitzen du espazio nazionala.



Egunero Euskal Herriko herritarren %80 baino gehiagok Espainia edo Frantziari buruz hitz egiten dion komunikabide bat kontsumitzen du; aldiz, %35-40k bakarrik kontsumitzen ditu Euskal Herri osoari buruz ari diren komunikabideak”

Horrek zer dakar? Ondorio handiak. Euskal Herria azkenean irudikatzen dugun lurralde bat da, hizkuntza bat du, historia bat, oroimena, proiektu politiko batzuk eta abar. Horrek guztiak osatzen du nazio bat. Baina imajina dezagun kanpotik datorren pertsona bat: euskararik ez du, hemengo oroimenik ere ez, ez du egitasmo politiko nazionalik Euskal Herrirako, egunero-koan hiri batean bizi da eta, akaso, Kantabriara doa oporretan. Pertsona horrentzat zein da Euskal Herriaren eguneroko esperientzia? Batez ere komunikabideek ematen diotena, eta hor batez ere Espainia edo Frantziaren iruditeria da nagusi, eta Euskal Herriarena oso txikia. Beraz, ez dago komunikazio esparruan oinarritutako euskal naziorik.

Hori larria da etorkizunari begira.

Euskal Herria zer da? Oraintxe aipatu ditugun elementu horiek guztiak eta gehiago, baina horiek egunero elikatu behar dira, bestela, gaur egun munduak daraman abiadurarekin, bihar-etzi aldatu egiten dira. Kultura informazioan oinarritzen da eta kultura bera ere gaur egun inoiz baino azkarrago aldatzen da; eta kulturekin batera ideologiak, mundu ikuskerak...

Hori guztia kontuan hartuta, Euskal Herriaren irudia handitzen ala txikitzen doa azken hamarkadatan?

Ez dut erantzun borobilik, dimentsio batzuetan agian indartzen ari da eta beste batzuetan ahultzen.

Komunikazioaren esparruan ere pentsa daiteke hori?

Bai. Adibidez, badira zantzuak pentsatzeko komunikazioaren esparru nazionala indartu daitekeela. EITB ia Euskal Herri osora hedatzea lortu da; euskarazko komunikabideek krisia pairatu dute, baina eutsi egin diote eta laguntzen dute esparru hori indartzen. Zantzu negatiboak ere badira. Digitalizazioak sekulako atzerakada ekarri digula uste dut: esaterako, duela 10-15 urte ETBk haurren artean zuen nagusitasuna lehertu egin da. Prensaren kasuan, estatuko prentsa askoz gehiago sartu da, jendeak ez du erosten *El País*, *El Mundo* edo *El Diario.es*, baina interneten asko kontsumitzen dira. Iritzi publikoari dago-kionez, lehen gatazkak espazio handia zuen eta hori orain batez ere estatuko beste gai batzuek okupatu dute. Sare sozialetan estatuko txistek eta informazioa zein erraz sartzen den ikusgarri da... Ez dakit aurrera edo atzera goazen, baina arrisku handiak ikusten ditut.

Zure ustez ba al da arrisku horren pertzepziorik gizartean, instituzioetan, unibertsitatean...

Uste dut ez dagoela. Hamarkadatan zehar asko eztabaidatu da komunikabideen eraginaz eta, esaterako, aipatu izan da nola 40 urteko frankismoan ez zen lortu euskal nazio sentimendua ezabatzea. Baina baziren beste autodefentsa mekanismo batzuk: ideologia, kultura sendoa... Gaur egun mekanismo horiek ahuldu egin dira: kultura eta gizartea oso aldakorrek dira, munduko kulturek gero eta antzekotasun handiagoak dituzte haien artean... eta, beraz, nire susmoa da komunikabideek gaur egun indar handiagoa dutela.

Milaka urteko herria gara, erromatarrak pasa dira hemendik, arabiarrek, Europako hizkuntza zaharrena, Franco... eta gu beti tinko hemen. Halakoak errepikatzen ditugu eta ez dakit ez ote

dugun gehiegizko konfiantza horretan; hau da, milaka urtez iraun badugu, beste milaka iraun dezakegula uste dugu...

Mitologiaren kutsua hartzen du horrek guztiak gaur egun...

Iragana idatzi daiteke, baina etorkizuna idatzi gabe dago. Gaur egun nazio bat gara, baina bihar? Lurralde honetako hiru milioi pertsonak hartuta, batzuetan pentsatu beharko genuke ea gaur egun ere nazio bat garen.

Katalanek azken hamarkadatan zezenari adarretatik heldu diotela diozu. Zer egin dute?

Katalanek hasieratik ikusi zuten komunikazioa inportantea dela. [Jordi] Pujolek kontatzen du autonomiaren hasieran gizarteari erakutsi behar ziotela zerbait handia egin zutela, eta mahai gainean bi proposamen izan zituztela: polizia autonomikoa egin ala telebista. ``Pujolek argi esan zuen: telebista. Hemen telebista baino lehenago Berroziak [Ertzaintzaren aitzindariak] sortu ziren.

Katalanek hasieratik ikusi zuten argi komunikazio sare sendoa bat behar zutela eta hortik etorri dira komunikabide sare sozial sendoa, hedabide pribatuak katalanismoan lerrotzea, ikus-entzunezkoen kontseilua, ikerketa... Generalitatean ere beti eduki dute gaia lehendakartzan eta ez kultura sailean. Beste gauza batzuekin batera, nazio estrategia baten erdian kokatu dute komunikazioa. EAEko lehen gobernuan komunikazio sailburuordetza bat izan zen ETB sortu arte eta kito.

Industrialan, adibidez, bai egin dira plan estrategikoak eta baliabideak ere jarri dira. Komunikazioan ez da maila horretako planik egin. Horrekin agian bihar aberatsak izan gaitezke, baina zer izango gara: espainarrak, euskaldunak, globalak... Herri izaera emango diguna ez da industriatik etorriko, trenetik; etorriko da nortasunetik, hizkuntzatik, kulturatik, eta horretarako



Eskolak irakatsi egiten du eta legeak exijitu –ofizialtasuna–, baina gero zerk bultzatzen du erabilera? Maila sozialean ez da behar beste egin, eta hor komunikabideek sekulako eragina dute”

komunikazioa behar da. Instituzioetatik ez da horren beharrik ikusi. Pertsona bakarren batzuk ikusten dute, baina horren aldeko politikarik ez da garatu.

Zeintzuk izan beharko lirateke Euskal Herriaren espazio komunikatiboa eraikitzeko estrategiaren zutoinak?

Administrazioa, gizarte zibila eta mundu pribatuaren arteko komunikazio politika adostu bat izatea, hori lehen. Komunikazio legeak Europako estatu guztietan daude, hemen ez. Eta hor bai begiratu behar diogu historiari, hemen nazioartean eta euskararen kasuan, egin denaren zati handi bat herri ekimenetik etorri da eta. Hori ezin da bazterrean utzi.

Gaur egun zientzia fikzioa dirudi Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren arteko koordinazioa bilatzea komunikazio legeak garatzeko.

Duela gutxi Arantxa Tapiak esan zuen AHT estrategikoa zela lurralde kohesioaren ikuspegitik. Nik eskema hori nahi dut komunikazioan ere bai. Gaur egun badira baldintzak Euskal Herri osoan pausuak emateko alor honetan. Duela 100 urte Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu zireneko antzeko planteamendua beharko litzateke: “Herri bat gara eta mugitzen ez bagara desagertuko gara, beraz, behar ditugu gutxieneko instituzio batzuk”. Eta Hegoaldeko lau diputa-

“

Industrian, adibidez, bai egin dira plan estrategikoak eta baliabideak ere jarri dira. Komunikazioan ez da maila horretako planik egin. Horrekin agian bihar aberatsak izan gaitezke, baina zer izango gara: espainarrak, euskaldunak, globalak...”

zioen sostenguearekin aipatu bi erakunde sortu ziren. Zergatik ezin da halako zerbait egin komunikazioaren esparruan? Zergatik ez euskararen telebista bat euskararen lurralde guztian? Jakina, horretarako gainditu behar da logika partidista eta pentsatu behar da komunikabide horiek alderdien gainetik egon behar dutela.

Arreta berezia jartzen duzu telebistan. Zergatik?

Gaur egun gehien hedatzen den komunikabidea delako. Prentsa ere oso inportantea da, jakina, sortzen duelako irudi bat elite politiko eta kulturaletan eta horrek eragina duelako gizarte osoan, baina jendearengana modu zuzenean iristeko medio indartsuena telebista da.

Dagoeneko ETB ia Euskal Herri osoan ikusten da.

Bai, baina gutxienez baditu bi arazo handi: bat, jende gutxi ikusten du eta bi, alboan ditu ehunka telebista, espazio estatalak eta globalak elikatzen. Badugu ETB, baina indartu behar dugu. Horrez gain, komunikabide batek bakarrik ez du ezer egingo, komunikazioa sistema gisa pentsatu behar dugu. Gaur egun oso telebista gutxi lortzen du audientziaren %15etik pasatzea, baina askoren lana batzen baduzu, %80k birsortzen dute Espainia. Sistema bezala jokatzeko dute. Guk daukagu telebista bat sistema oso bati aurre egiteko.

Espazio nazionala ahula da beste biek konparatuta eta espazio nazional horretan euskarazkoak gutxi gara: ETB, Euskadi Irratia, *Berria*, ARGIA, Hamaika...

Ordaintzen ari gara komunikazio estrategia falta hori eta ordaintzen ari gara euskararen normalizazio politika oker bat. Euskararen berreskurapenean eskola izan da apustu nagusia; oso apustu handia egin da, arazoak arazo emaitzak eman ditu ezagutzen, baina hori ez da behar adina lagundu beste politika batzuekin. Eskolak irakatsi egiten du eta legeak exijitu —ofizialtasuna—, baina gero zerk bultzatzen du erabilera? Maila sozialean ez da behar beste egin, eta hor komunikabideek sekulako eragina dute.

Leku batek aparteko aipamena merezi du. Bilbo Handia aztertu duzu eta egoera latza da.

Oso latza. Bilbo Handian egunero komunikazio espazio nazionalen murgiltzen direnak %30 dira eta espazio estatalean egunero murgiltzen direnak %90. Azken hamar urteetan espazio nazionalaren portzentajeak %10 galdu du. Orduan, bilbotar askorentzat Euskal Herria zer da Bilbo Handitik ia mugitzen ez badira eta kontsumitzen dituzten hedabideak eremu estatalekoak badira? Hiriburu guztietako arazoa da, baina Bilbon da larriena eta han bizi da Euskal Herriko biztanleriaren herena.

Komunikazio esparrurik gabe, posible da euskal naziorik erakitzea?

Uste dut gaur egun ezetz. Beste inork komunikazio esparrurik ez balu, guk ere iraun ahal izango genuke herri bezala. Baina komunikazio esparruz inguratuta gaude, bai estatuenak baita globalak ere, eta horren aurrean guk gurea ez badugu, ez dugu zereginik. Estatuarekin ere antzera gerta liteke: estatua beharrezkoa da herri bat izateko? Tira, besteek ez badute, zuk ere ez agian, baina besteek baldin badute zuk ere behar duzu, bestela irentsi egiten zaituzte. Estatu indartsu asko ere kezkatuta daude esparru globalarekin eta neurriak hartzen ari dira. ■

EUSKAL KOMUNITATEA INDARTUZ

JOSEBA ALVAREZ *

Inguratzen gaituen mundua bezala, Euskal Herria ere errotik aldatu da azken hamarkadatan. Mota guztietako izugarritzko eraldaketak bizi izan ditu gure herriak, bai lan harremanetan, bai kontsumo ereduan, bai jendarte antolaketan eta baita gure eguneroko bizitzaren beste mila alorretan ere. Eta beldur naiz euskal indar politikoen alde-tik eskaini izan zaizkigun proposamen politiko historikoak ez ote diren lekuz kanpo geratu.

Baina formak asko aldatu badira ere, edukia beti-koa ez ote den, edota oso antzekoa ez ote den pentsatu beharko genuke. Izan ere, gaur, atzo bezala, sistema kapitalistak, heteropatriarkalak orain, herriak, herritarrak, eta langileria miseriarra eta uniformizaziora kondentzen ditu, belaunaldi berrien eta planetaren etrokizuna zalantzan jartzeraino. Eta gainera, krisiaren aitzakian egoera gogortu dute, segurtasunaren izenean herritar-ron oinarritzko eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta kulturalak gehiago zapuztuz. Horrela ikusita, aldaketa gutxi, ezta?

Kapitalismoak formen eztabaidatara eraman nahi gaitu, edukia aldatzen ez den bitartean formak aldatzeko prest dagoelako. Eta beldur naiz pragmatismoaren izenean, eta jendarte asko aldatu dela argudiatuz, euskal indar politiko gehienek eskaintza berria ez ote den nagusiki formen eztabaidara mugatzen, benetako eraldaketa helburutzat duten jendarte mugimenduen-gandik zein herritar eta langileengandik alden-duz. Horretan datza Euskal Herrian ematen ari den aldaketarik nagusienetako bat.

Ondorioa argia da, gero eta gehiago dira indar politikoak alde batera utzi eta beraien lana, ekar-pena eta borroka, jendarte mugimenduetan edota eragile sozialetan ematen duten herritarrak. Bide horretatik Euskal Komunitate Soziala indartu da

azken hamarkadatan, baina garai batean ez bezala, egun ez du bere burua inongo eskaintza politiko zehatz –eta batez ere praktika– batean islatua ikusten. Euskal Espazio Soziala egituratzen ari da eta, oraingoan, espazio autonomo, autogestionatu eta desobediente moduan egiten ari da. Nagusiki euskaraz gainera, euskalduna delako eta bestelako Euskal Herria helburu duelako. Alderdientzat, honakoa aukera aproposa izan daiteke mugida hauekin partekatu nahi dituzten ardatz eta egin moldeen inguruan erabaki egokiak hartzeko.

Izan ere, Euskal Herriko jendarte mugimenduak ez du sistemaren formazko eraldaketa bilatzen, fondokoa baino. Lurralde Askean ondo esaten dugun moduan, Euskal Herria Bizimodu Onaren herria bihurtu nahi dugu jendarte mugimen-duok eta horrek konpromiso eraldatzaileak har-tzea eskatzen du, pausoka gure alternatibak eraikitzea eta bidean jarriko dizkiguten oztopoen aurrean, desobedientziaz, ekintza zuzenaz, kola-borazio ezaz ala erresistentziaz jokatzeko. Euskal indar politiko nagusiak ere bide horiek landu eta asumitzeko prest agertuko ote dira ?

Eta horixe da Aman Komunak sarean ala Zubie-tan Lurralde Askeak antolatutako Iraultza Txikien Akanpadan bildu ginen pertsona, talde eta eragile ezberdinak dagoeneko egiten ari garen lana, mota guztietako proiektu autogestionatuei lehentasuna emanez eta hauen arteko elkarlana zein ezagutza bilatuz. Bi hitzetan esanda, Euskal Herria Bizimodu Onaren herria bihurtu nahi duen euskal komunitatea indartuz eta artikulatuz doa. Inoiz baino herriago gara eta Euskal Herria behetik eta ezkerretik eraiki dezagun, gure espa-zio soziala, herri boterea, egituratzen ari gara. Hori da datozen urteetarako lan lerro nagusia. ■

*(Aman Komuneko sareko eta Lurralde Askea taldeko kidea)

Amul been nit ku leegalul

Atera
aldarria
kalera
euskaraz
eta wolofez!

inor
ez
da
ilegala

Kamiseta
bakoitzeko 2 euro
Mbolo proiektura
bideratuko dira.
Bilboko migratzaileak
martxan jartzen
ari diren garbiketa
kooperatiba da Mbolo.

Erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus | azoka@argia.eus | ☎ 943 371 545

15€
Bidalketa gastuak
4€

